

# Voxkatu

**A**ndaluzian Vox bozkatu dutenak ez dira lau katu, laurehun mila dira. Ez dira lau katu, eta ez ziren lehenago ere. Muturreko eskuina ez da oraingo asmakizun berria Espainian. Horietako asko, zerbait izatekotan, katu momifikatuak dira, urteek aurrera egin arren euren jarrera fosilizatuei tinko eutsi dietenak.

Alderdi Popularra izan da orain arte gordelekua. Aterpe eman die, baina beti kamuflatuta: barnean, botere handiarekin; publikoki, bigarren mailan. Label demokratikoa lortzeko eta Trantsizioaren gezur handia ezkutuan mantentzeko idearioaren zati bat edulkoratuta azaldu dute azken hamarkadetan. Agintari frankistak alderdiaren eta estatutu aparatuen buru izatera zuzenean pasatzearen faktura.

Egia da, muturreko eskuindarren gorakada gero eta globalagoa da, ezin da errealtatea hainbeste sinplifikatu betiko frankistak direla esanez. Voxi babesa eman diotenen zati bat, beste toki batzuetan (Europako beste herrialdeetan, Ameriketako Estatu Batuetan, Brasilen...) bezalaxe, politikaren eta politikarien deslegitimaziotik eta erakundeak jendartearen arazoak kudeatzeko erabat antzu ikustetik dator. Horrek bidea laua uzten die balore atzerakoiaren bidez soluzio "errazak" proposatzen dituzten ahots populistei. Espainiako kasuan, ordea, diktadurako urteetatik (eta, are, aurretik) gaurdaino bizi-bizirik iritsi den identitate-erakuntzak pisu handiagoa duela esango nuke.

Horiek horrela, zergatik azalera-tu da orain eta ez lehenago? Arrazoi ezberdinak dira medio, baina, laburbilduz, orain ikusi dutelako euren ideia protofaxistak inolako konplexurik



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

**Faxismoa esnatzearen errua katalanena omen da. Edo feministena zen? Biak ala biak irakurri edo entzun ditugu, eta batean zein bestean, mekanismo lotsa-emangarri berari erantzuten dioten baieztapenak dira. Jendarte justuago bat lortzeko borroka legitimo batek indarra hartzen badu, horrek faxismoa esnatzen du**

gabe defendatzeko parada. Batetik, ez dezagun ahaztu, Voxek ordezkatzeko duen ideologiak telebista kate propioak izan ditu, baita Santiago Abascal en alderdia existitu aurretik ere. Halaber, Kataluniako aferaren kudeaketan sortu duten kontakizunarekin proposamen koherente bakarra muturreko eskuin

autoritarioarena da. Konstituzioaren eta legearen zorupean dagoena hori da, ez da gehiegi harraskatu behar horretaz jabetzeko. Ezkerrak ere ez du genealogia kolonialistatik askatuko dituen espainiar nazionalismo eredu bat proposatzeko ausardiarik. Jokaleku horretan eta Europako eskuineko muturraren arrakastaren aitzakiapean, hedabide nagusiek Vox proiektatu dute erakundeetan inolako ordezkartzarik izan gabe. Telebista minutuetan zenbatu daitezke bozak.

Horregatik, faxismoa esnatzearen errua katalanena omen da. Edo feministena zen? Biak ala biak irakurri edo entzun ditugu, eta batean zein bestean, mekanismo lotsa-emangarri berdinari erantzuten dioten baieztapenak dira. Jendarte justuago bat lortzeko borroka legitimo batek indarra hartzen badu, horrek faxismoa esnatzen du. Ez, barkatu: faxismoa hor dago, eta altxatzen ez bada lozorroan egonda ere eroso dagoelako da. Zapaltzen zaituen botaren pisua gehiago sumatzen da goraka bultza eginez gero, kontrari beherantzko indarra igarriko duzulako. Geldi egonda ez duzu hainbeste nabarituko, baina horrek ez du bota desagerrarazten, berdin-berdin jarraituko duzu zapalduta.

Gurera ez dut uste, baina oso litekeena da Andaluziatik Estatuko beste eremu batzuetara Voxen emaitzak hedatzea. Guzti horrek zerbaitetarako balioko badu Espainiaren benetakoa aurpegia erakusteko izango da. Ez naiz "zenbat eta okerrago, orduan eta hobeto" pentsaeraren zale, ez naiz talde horretan enrolatuko. Sufrimendu handia baitakarkigu aurpegi anker eta autoritario horrek. Zenbat eta okerrago ez, baina zenbat eta argiago, bai, hobe. ■